

Baliagai naturalen eta gatazken arteko loturak apurtu: Europa Batasunak arautu beharreko arazoa

Gizarte zibilaren jarrerari buruzko dokumentua

Gobernuz kanpoko 58 erakunde europarrek eta nazioartekoek sortutako taldeak Europako Batzordeari eskatzen dio merkataritzako erakunde europarrei hornidura katea bidezko ardurarekin kudeatzea exigituko dien legea jartzea; horrela ziurtatuko da¹ ez dutela gatazken finantzaketan laguntzen edota ez direla kontsentitzen baliagai naturalen ekoizpenean eta merkaturatzean zehar giza eskubideen abusuak¹.

Lege horrek, gutxienez, Nazio Batuek eta Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundeak babestutako nazioarteko neurriak bete beharko lituzke, eta, era berean, Europar Batasuneko¹ Gizarte-Ardura Korporatibo estrategiak dituen hastapenak bere baitan hartu beharko lituzke.

Gaur egungo hornitze kateek, nazioartekoak edo globalak izanik, zera daramate beraien baitan: enpresa askok, EBean jardun dutenak barne, mundu

¹ Jatorrizko testuan ingeles, *human rights violation* eta *human rights abuse* terminoen arteko desberdintasuna egiten da. Lehenengo terminoak giza eskubideen legearen urratzeari egiten dio erreferentzia, *abuse* terminoarekin urratze honek biktimarengan duen ondorioei egiten zaio erreferentzia. Jatorrizko testuarekin fideltasuna ahalik eta gehien mantentzeko, euskaraz desberdintasun hau ere mantentzen da eta *human rights violation* “giza eskubideen urratzea” bezala eta *human rights abuse* “giza eskubideen abusuak” bezala izultzen dira. (Itzultzailearen oharra)

mailako hainbat gatazka bortitz eragin dituzten baliagarri naturalak erosi eta komertzializatzen dituzte. EB-ean egoitza duten eta baliagai naturalekin salerosketan aritzen diren enpresek ahalegina egin behar dute bere jarduerak, era zuzenean edo zeharka, kalterik egin ez dezan. Esparru administratibo bat behar da enpresa europarren erantzukizunak zehazteko eta arautzaileei, merkatuei eta kontsumitzaileei oinarria emateko zaintza egokia egin dezaten.

2012an, Europar Batasunak Bakearen Nobel Saria jaso zuen bakea eta giza-eskubideak sustatzeagatik. EB munduko merkataritza-blokerik handiena ere bada, eta baliagai naturalak eta lehengaiak komertzializatzen dituzten munduko enpresa garrantzitsuen egoitza da. Are gehiago, Europako Batzordeak, Estatu Kideekin batera, garapenera zuzendutako munduko laguntzaren erdia baino gehiago ematen du, baliagai naturalak direla eta sortutako gatazkak jasaten dituzten herrialdeei zuzendutako laguntza barne². Merkatu europarraren dimentsioak aukera ona ematen dio EBri nazioarteko hornidura katean eragina izateko eta beste eskumen batzuetan hornidura gardena eta arduratsua sustatzeko.

Giza eskubideen Europako legearen arabera, EB-eko Estatu Kideek ziurtatu behar dute bere eskumenean lan egiten duten enpresek ez dutela eragiten ezta laguntzen ere giza eskubideak urratzerakoan beraien merkataritza jardura dela eta, ez era zuzenean ezta zeharka ere. Gatazka-finantzaketa kasuak deuseztatzeko asmoz, EBtik kanpoko herrialdeak, esate baterako Estatu Batuak, enpresek baliagai naturalen hornidura katea kudeatzeko behar dituzten legezko baldintzak ezartzen hasi dira.

EB-eko Estatu Kideek lehentasun gisa hartu behar dute hori.. 2013ko ekaineko G8ren goi-bileraren azkeneko deklarazioak baliagai naturalen eta hornidura katearen kudeaketa gardena eta arduratsuaren garrantzia azpimarratu du³. Orain dela gutxi, Europako Batzordeak "Gatazka eta arrisku handiko zonaldeetan jatorria duten mineralen hornitze arduratsuentzako EB-ren ekimen posible bati" buruzko kontsulta publikoa egin zuen.

Helburu hau lortzeko neurri garrantzitsu batzuk ondorengoak dira: Gardentasuna eta Kontabilitateari buruzko EB-ren arauetara egindako azken berrikuspenak, eta Batzordearen konpromiso publikoak ELGA-k Enpresa Multinazionalei eta Zuzeneko Ardura Gidari zuzendutako Arauetara laguntza handiagoa emateko. Baina neurri hauek ez dute ondorio handirik ekarri⁴. Gomendatzen dugu Europar Batzordeak ondorengo ezaugarriak dituzten legeak abian ipini ditzan:

- Merkataritzan **eginkizun juridiko lotesle** bat sortzen duen legedia, **hornidura katea beharrezko ardurarekin** zuzentzeko eta, horrela, gatazkaren finantzaketarako eta giza eskubideen abusuetarako dauden arriskuak identifikatu eta arintzeko;

- **Nazioarteko garrantzia duten tresnetan oinarrituak**, Giza Eskubideen Nazioarteko Gutuna, Nazioarteko Lan Erakundearen (NLE) oinarritzko itunak, giza eskubideei buruzko nazioarteko legeria eta beste arau⁵ batzuk (6) Nazioarteko Zuzenbide Penal eta Humanitarioa, eta gatazkan dauden eta arrisku handiko zonaldeetarako Zuzeneko Ardurarako Gida barne (ELGA-ren Zuzendaritza);
- **Estatuak giza eskubideak babesteko duen eginkizuna aitortzen duena, eta baita, giza eskubideen Nazioarteko Legean zehazten den bezala, enpresek** Nazio Batuen Printzipio Rektoreetan jasotzen diren giza eskubideak errespetatzeko duen erantzukizuna ere, biktimek justizia eskuragarri izan dezaten ahalbideratzeko⁶;
- **Hornidura katearen segmentu guztietan** ezartzen diren legeak⁷;
- **Mundu guztira era geografikoan iristen** diren legeak; honek esan nahi du beharrezko arduraz zuzendu behar direla gatazka eta arrisku handiko edozein zonaldeetan sortutako hornidura kate guztiak⁸;
- **Gai askori eragingo diotenak eta baliagai natural guztietan ezarri** daitezkeen legeak⁹;
- **Arriskueta oinarritutako ikuspegian** oinarritutako legeak; ikuspegi honek arriskuak arintzeko esparru bat du bere baitan eta hau azpimarratzen du, eta bere ondorioa pertsonengan eta komunitateengan duen eragina kontuan hartu behar du;
- Gardentasuna eta garapen iraunkorra sustatzen dituztenak eta **EB-ren legegintza eta ekimen izatedunak osatzen** dituzten legeak;
- **Ikuspegi sakon eta zabalago** bateko parte izan daitezela, ikuspegi honen arabera neurriak hartu behar ditu ingurugiroaren eta berarekin lotutako bizi-moduaren hondamena saihesteko, gobernantza sendotzeko eta segurtasuna eta meatze-erreforma sustatzeko baliagai natural ugari dituzten herrialdeetan.

Baliagai naturalen eta gatazken arteko harremanak apurtuz

Hamarkadetan zehar, mineralen, harribitxien eta beste lehengaien salerosketak munduko gatazkarik bortitzenen sorreran eta oinarrian rol garrantzitsua izan du,

berez ahulak diren Estatuak gehiago ahulduz. Baliagai naturalen salerosketatik lortutako irabaziek baliabideak eman diezaiokete talde armatuei aktibitatean jarrai dezaten eta baita aparteko finantziarioa Estatuaren segurtasun indarrei eta ofizial ustelei zeintzuk egitura opakuak duten enpresetan ezkututzen baitira. Salerosketarako edota ustiapen-zonaldeak era zuzenean kontrolatzen dituzten talde-armatuek eta segurtasun indarrek milioika dolar lor ditzakete esku-dirutan. Kasu askotan, talde hauek giza eskubideen abusu larrien arduradunak dira¹⁰.

Azkeneko 60 urteetan, gutxienez barne-estatu mailako gatazka guztien %40ak baliagai naturalekin lotura izan du, eta baliagai hauek gatazka bat gertatzeko posibilitatea biderkatzen dute¹¹. Gatazka posible baten arriskuak areagotu egiten dira ondorengo egoera kontuan hartzen badugu, hau da, gero eta nazioarteko borroka handiagoa da baliabide urriak eskuratzeko garapen bidean dauden herrialdeetan; izan ere, hauetako askok ezengonkortasun ekonomiko eta politikarako joera baitute.

Gobernuz kanpoko erakundeek (GKE), Nazio Batuek eta beste erakunde batzuek egindako ikerketek erakusten dute baliagai naturalak zonalde zehatz batzuetatik datozela: zonalde hauetan, era honetako jarduerak benetako arrisku dira gatazkak finantzatzeko, ezengonkortasuna sortzeko eta giza eskubideen urratzea emateko. Materiak munduko hornidura kateetan sartzen dira eta hemendik merkaturatzen, prozesatzen eta manufacturatzeko dira, ondoren industriarako eta kontsumorako produktu askotara iristen direlarik.

Nazioarteko hornidura katearen eta gatazka bortitzen arteko loturak apurtzeko egin diren azken ahaleginak Kongoko Errepublika Demokratikoko erdigunean bildu dira. Gatazkako eta arrisku handiko zonaldeetatik datozen baliagai naturalez hornitzen diren Europako enpresei aurre egiteko neurriak ere beharrezkoak dira. Ondorengo kasuek mundu-mailako arazoa dela erakusten dute.

- **Kolonbian** gatazkak 218.000 pertsona baino gehiago erail ditu, beren bizilekua aldatu behar izan duten pertsonen kopurua 4.700.000 eta 5.700.000 artekoa da eta 25.000 pertsona baino gehiagoren desagerpena eragin du. Herrialde honetan, talde-armatuek tantalio, wolframio, ikatz, urre meategiak eta merkataritzarako bideak kontrolatzen dituzte eta zergak ezartzen dizkiete beraiei¹². Kolonbiako Indar Armatu Iraultzaileak (FARC), legez kanpoko mineral erauzketan nahasitako talde nagusia, bere baliagai ekonomikoen %20ra arte lortzen du urre salerosketaren kontroletik Kolonbian. Askapen Nazionalerako Armada (ELN) eta azaltzen ari diren talde kriminalak (BACRIM) bezalako taldeek ere merkataritza honetatik irabaziaz lortzen dituzte neurri handi batean¹³. Meatze-zonaldeetan, lurraren kontrola militarizatu egin da eta gatazkarako iturri bihurtu da¹⁴, Kolonbian gertatzen diren giza eskubide

abusuen %80 mineralen eta petrolioaren erauzketa-zonaldeetan ematen direlarik¹⁵. Gatazkak populazio kolonbiarraren %10ari eragiten dio era zuzenean, batez ere zonalde isolatuetan bizi direnei.¹⁶

- Orain dela 15 urte baino gehiagotik hona, ezta inu, tantalio, wolframio eta urrearen merkataritzak gatazka bortitz bat sustatu du **Ipar Kivu-ko eta Hego Kivu-ko ekialdeko eskualdeetan (Kongoko Errepublika Demokratikoa)**. Meategien eta salerosketarako bideen kontrola gatazkaren arrazoi nagusia ez bada ere, kontrol horrekiko borroka sustapen bihurtu da liskarrean dabiltzan taldeentzat borrokan jarraitzeko.. Erreboltariek eta armada nazionalak milioika dolar lortu dituzte legez kanpoko zergen eta merkataritzaren kontrolaren bidez, lekuko populazioari ikaragarriko sufrimendua ezartzen dieten bitartean¹⁷. Katanga hego eskualdean, kobrea eta kobaltoa eraunsteo kontratatuak izan diren artisau-meatzarien kontrako abusuak nagusitzen dira, haur-lana arazo larria den bitartean. Hego Kivuko eta Ipar Kivuko meategietan esklabotza modernoko kasuak dokumentatu dira¹⁸. Meatzariek oso diru eskas jasotzen dute erauzten dituzten mineralengatik eta esplotazio sistematikoaren biktimak dira. Mea hornidura katean saltzen da, bai Afrikako erdialdeko enpresak bai multinazionalak barne daudelarik¹⁹.
- **Birmaniak** harribitxi ugari ditu, errubiak eta jadeita barne, eta baita ere kobrea, ezta inua, wolframioa eta urrea bezalako beste mineral batzuk²⁰. Azken hamarkadetan, herrialdeko meatze-industria militarizatuta egon da armada nazionalako kideek meatzaritza, marketina eta esportazioa kontrolatzen dutelarik²¹. Birmaniako indar armatuak, Tatmadaw-ek, munduko beste edozein armadek baino gehiago urratzen ditu giza eskubideak. Askotan hilketak, torturak, bortxaketak, behartutako lana, behartutako lekualdaketa eta beste krimenen salaketei aurre egin behar die²².
- Diamante meatze-enpresen eta **Zimbabwe** gobernatzen duen ZANU-PF alderdiareriko segurtasun indar leialen arteko lotura begi bistakoa da. Lotura horrek arrisku hau dakar: talde armatuek ez ote diren ilegalki finantziatzen diamantetatik lortutako irabaziekin. Zimbabwe-ko poliziaren eta indar armatuko kideak herrialdeko irabazi handiak sortzen dituzten diamante-meategi batzuetako kontseilariak edo onuradunak dira. Askotan, indar armatuei eta poliziariei egotzi zaie populazio zibilaren kontrako bortxakeria eragin izana²³.
- **Afrika Erdiko Errepublikari** buruzko txostenen arabera, Seleken koalizio erreboltariak diamante-salerosketatik lortutako irabaziak erabili zituen orain dela gutxi gertatutako Estatu-kolpea finantzatzeko²⁴. Boterean daudenetik, soldadu erreboltariei leporatu zaie giza eskubideak

larriki urratzea²⁵. Estatu-kolpearen ondoren, Afrika Erdialdeko Errepublika Kimberley Prozesutik kanporatua izan zen, hots, landugabeko diamanteen zertifikazio sistematik; baina mugak oso gutxi kontrolatzen direnez, diamanteek nazioarteko merkatuetara iristen jarraituko dute, eta honek ondorengo galdera planteatzen du: Irabazietati nork ateratzen ditu etekinak?.

ELGA-k eta NBE-k garatutako zuzeneko arduran oinarritzen den EB-ren araudi indartsu batek ziurtatuko luke EB-ean merkaturatutako mineralak ez daudela ez gatazkarekin ez giza eskubideen abusuekin lotuta. Era zuzenean erabiltzen bada, gatazka arriskuan dauden herrialdeen ekonomia egonkortzen ere lagunduko luke, baliagai naturalen kudeaketa modu gardenean eta arduratsuan sustatuz²⁶.

Dauden nazioarteko arauen gainean eraiki

Estatuak herritarrak babesteko duen eskubidea argi agertzen da nazioarteko zuzenbidean. Giza Eskubideen Nazioarteko Gutunak giza eskubideak babesteko Estatuak duen betebeharra ezartzen du²⁷, giza eskubideei buruzko nazioarteko beste itun eta araudietan garatuagoa agertzen delarik, adibidez, NBE-ren Merkataritzarako eta Giza Eskubideentzako Printzipioak (NBE-ren Printzipio Gidariak) eta “Babestu, Errespetatu eta Konpondu” esparruaren lehenengo oinarria²⁸. Betebehar honi loturik, Estatuaren betebehar nagusia ondorengo da: giza eskubideak urratzeko arriskua handia dagoen gatazka zonaldeetan garatutako merkataritza-jarduerak abusuekin loturik ez dutela ziurtatu behar du. Honen ondorioz, enpresek beraien jarduerak sor ditzaketen giza eskubideen kontrako arriskuak identifikatu, saihestu eta murrizten dituztela ziurtatu behar du²⁹.

NBE-ren Printzipio Gidariak eta “Babestu, Errespetatu eta Konpondu” esparruaren bigarren oinarriak merkataritza-jardueraren betekizunak giza eskubideak errespetatzea ezartzen du, giza eskubideei zuzeneko ardura ezartzearen erantzukizuna barne eta “Giza eskubideekiko errespeturako babesa gatazka zonaldeetan” kontzeptuaren bidez Estatuaren betebeharra bereziki aipatuz; honen barne aurkitzen da:

“(d) ziurtatu gaur egungo politikak, legegintza, arauketak eta neurri erabilgarriak eraginkorrak direla merkataritza-inplikazioak dituen arriskuak giza eskubideen urraketari dagokienez³⁰”.

Duela gutxi NBE-ren Segurtasun Kontseiluak egin dituen ahaleginei eta Estatu Batuetako Kongresuak gatazka eta arrisku handiko zonaldeetatik datozen

mineralak erauzten dituzten enpresentzako garatutako zuzeneko ardurararekiko araei esker, merkataritza-jardueretan aldaketak eman dira, batez ere Aintzira Handiko Eskualde Afrikarrean. ELGA-k garatutako Zuzeneko Ardurako bost pausotan oinarritutako Esparruak NBE-ren Printzipio Gidarien bigarren oinarria aldatzen du, ardura korporatiboarekin lotuta dagoena, eta zonalde hauetan dauden eta mineralak erauzten dituzten enpresek erabili behar duten gida eraginkor bihurtzen du bigarren oinarri hau. ELGA-ren Gidaren inguruan nazioarteko adostasun zabala eman da, adostasun hau interes desberdinak dituen lan-talde heterogeneo batek negoziatu duelarik eta ELGA-ren estatu-kideek adostasun hau 2011an hartu zutelarik, EB-ren gobernuen onespena zuela.

Ekimen-talde hauek nazioarteko erreferentzia-puntu argia eta koherente bat ezartzen dute eta enpresei baliagai naturalen ustiapen arduratsurako eredu bat ematen diete. Hau bereziki probetxugarria da gatazka-testuinguru konplexuetan lan egiten duten enpresentzako, non gobernu nazionalaren presentzia oso txikia da edo ez dago, eta giza eskubideak urratzeko arriskua handiago den.

Baliagai naturalen, gatazken eta giza eskubideen urratzearen arteko loturak apurtzeko zuzendutako hainbat ekimen publiko eta pribatuek ELGA-ren dokumentua aipatu dute hein handian Ekialdeko Kongon dagoen egoeraren erantzun gisa.

- 2010ko Kontsumitzailearen Babesarako eta Wall Street Erreformatarako Dodd-Frank Legeak Balore-merkatuaren Batzordean (SEC) kotizatuta dauden enpresei, enpresa europarrak barne, zuzeneko ardura betetzea eskatzen die ea beren produktuek Kongoko Errepublika Demokratikoko talde armatuak finantziatzen dituzten mineralak dituzten ala ez zehazteko orduan. Erabaki osagarri batean, SEC-ek ELGA-ren Gida zuzeneko arduraren arau fidagarri bat bezala aipatu zuen lege hori ezartzen duten enpresentzako³¹.
- NBE-ren Segurtasun Kontseiluak ELGA-k garatutako zuzeneko ardurarako araeukiko oso antzekoak diren zuzeneko ardurarako arauak onartu ditu enpresa guztientzako, Kongo Errepublika Demokratikotik mineralak esportatzen dituzten europar enpresei ere eragiten dielarik³².
- Kongoko Errepublika Demokratikoan eta Ruandan hartutako neurriek bi herrialde hauetan mineralak erauzten dituzten eta beraien salerosketarekin aritzen diren enpresei ELGA-ren araudia betetzeko beharrezko ardura har dezaten eskatzen die³³.
- Aintzira Handien Eskualdeko Nazioarteko Batzarrak, Aintzira Handien Eskualde Afrikarraren hamaika gobernuek osatutako eskualdeko organismoa, eskualdeko mineralen egiaztapen-programa bat burutuko

du, eta merkatariei ELGA-ren zuzeneko ardura bete dezaten eskatuko die ziurtapena eman baino lehen³⁴.

- Hainbat ekimen industrialak, Londoko Metal Preziatuen Merkatuaren Elkartearen Urre-arduratsurako Gidak (London Bullion Market Association), Urrearen Munduko Batzordearen “Gatazkarik gabeko Urrerako Araua”-k eta elektronika industriarako Gatazkarik Gabeko Galdategien Programak, bere kideentzako gida osagarri bat garatu dute, gida honek enpresak ELGA-ren Gidan ezarritako arauak betetzen laguntzea helburu duenik.

Arautzeko arazoa

EB-k ELGA-ren Gidan eta legeetan eta giza eskubideen nazioarteko arauetan, NBE-ren Printzipio Gidariak barne, ezarritako merkataritza-jarduera arduratsuak garatzeko printzipioetan oinarritutako araudi bat onartu beharko luke. EB-ren araudiak bermatuko luke enpresa europar guztiek bete behar dituztela jadanik beste esparruetako enpresek, bereziki Estatu Batuetakoek, betetzen dituzten eskakizunak. Araudi horrek enpresek bete beharrekoa birmoldatuko luke, gastuak gutxituz eta argituko luke arautzaileek, inbertitzaileek eta kontsumitzaileek erabili dezaketen betetze-estandarra enpresak ebaluatzeko orduan.

NBE-ren Giza Eskubideen Kontseiluak NBE-ren Printzipio Gidariak onartzeak eta Estatu Kideek ELGA-ren Gida babesteak argi erakusten dute enpresek, beren jarduera dela eta, giza eskubideak urratzen ez dituztela edota laguntzen ez dutela ziurtatzea espero dutela gobernuek.. Hala ere, egia esanda, enpresa kopuru mugatu batek bakarrik betetzen du itxaropen hau. Agerian dago legedia gainbegiratzeko premia.

15 urteetan zehar Ekialdeko Kongoan mineralen eta gatazken arteko loturei buruz egindako txostenek, ELGA-ren Kontaktu-Puntu Nazionaletan aurkeztutako salaketek eta era negargarrian burututako NBE-ren zigor-frogek porrot egin dute enpresak eskualdeko hornidura kateak aztertzea behartzerako orduan³⁵.

Araudiak sortu duen presioa, Kontsumitzailearen Babeserako eta Wall Street Erreformatarako Dodd-Frank Legearen 1502. Atalaren testuak erakusten duen bezala, faktore eraginkorra da enpresek urratsak eman ditzaten hornitze-kate arduratsuagoetarantz. Baldin eta legeak horrela derrigortzen ez badu, enpresa gehienek ez dute nahiko ahaleginik egiten ziurtatzeko beren erosketak ez direla

erabili gatazkak finantzatzeko, nahiz eta nazioarteko konpromisoak egon badauden³⁶. Gaur egun, lege estatubatuarra aipatzen dituen lau mineralak salerosten dituzten enpresa europarren %80 baino gehiagok ez dute politikarik, publikoki eskuragarri behintzat, mineralen hornitze arduratsurako, eta badirudi ez dutela ezer egin merkaturatutako mineralek ez dutela gatazka finantziatzen ziurtatzeko³⁷.

Baliagai naturalen, gatazken eta giza eskubideen abusuen arteko desloturarekin elkar lanean aritzeaz gain, zuzeneko arduraren araudi europarrak enpresentzako inpaktu onuragarri eta argia izango luke. Gardentasunarekin kudeatutako hornidura kateek enpresen identifikazioa eta babespena erraztuko lituzkete ingurugiroaren degradazioa eta suntsipenaren aurrean. Lege europar batek enpresa europarren izenari kalte egiteko arriskua murriztuko luke eta enpresa hauek funtsezko baliagai naturalak era iraunkorrean eta arduratsuan eskuragarri izan ditzaten ziurtatzeko pausu garrantzitsu bat izango litzateke. Modu egokian ezarriz, gatazka eta arrisku handiko zonaldeetako toki-ekonomietan inpaktu positiboa ere izango luke, espekulaziozko salerosketak etenez eta gatazkarekin elkar lanean aritzen ez den merkataritza sustatuz. Legearen proposamenak salerosketan jarraitzen utzi beharko luke, baina giza eskubideen urratze nabarmenak baztertuz.

Are gehiago, merkaritza-interesei komeni zaie giza eskubideak beraien jardueran zehar errespetatzea, giza eskubideei buruz indarrean dauden arauak horrela ohartarazten dute eta. NBE-ren Printzipio Gidarien eta ELGA-ren Gidaren arabera, enpresak zuzendaritza-batzordeetan giza eskubideekiko benetako inpaktua eta posiblea biltzen, berrikusten eta eztabaidatzen egon beharko lirateke jada. Enpresa batzuek gardentasuna hornidura kateetara ezartzerako orduan gastuak eman ahal direla argudiatzen badute ere, egungo alternatiba ezin da moralki defendatu; izan ere, alternatiba horren bidez enpresa europarrek baliagai naturalak eta lehengaiak eskuratzen dituzte hain era arriskutsuan non atzerriko herrialdeetako lekuko populazioa giza eskubideen abusu txarrenen biktimak baitira. Epe luzean, alternatiba hau garestiagoa da, bai enpresentzako bai Estatuentzako³⁸. Ikerketa independenteek industriako presio-taldeek deklazioak gezurtatzen dituzte, talde hauek hornidura kateak arakatzea neketsu eta garestiegia dela esaten dutelarik³⁹. Kongoko Ekialdeko minerala lehen erauzten ez zuten eta SEC-en kotizatzen duten enpresa batzuek Kongoko minerala erauzten hasi dira txostenak aurkezteko eskatzen duen lege estatubatuarra indarrean jarri ondoren; beraz, merkataritza arduratsu batetik sortzen den gastua oso garestia ez dela pentsa daiteke⁴⁰.

Kontsumitzaile, inbertitzaile eta akziodunen kontzientziario are handiagoak eta baliagai naturalen kudeaketa gardentasun handiagoarekin egiteko munduko

norabideak esan nahi dute baliagaiak era arduratsuan ustiatzeari uko egiten dioten enpresek bere izena eta inbertsioak kaltetzeko arriskua dutela. Arazoari aurre egiteko lege-ekimenek abiadura handia dute (Estatu Batuetan batez ere); Hori dela eta, enpresa europarrek merkataritza-desabantaila bati aurre egin behar liokete nazioarteko mailan, baldin eta beren merkataritza jarduerak giza eskubideen kontrako abusuak izateko duen arriskuari aurre egiteko orduan porrot egiten badute.

480 milioi kontsumitzaile baino gehiago dituen munduko merkatu handienetakoa eta bakarra izanik⁴¹, EB-k munduko hornidura kateetan duen abantaila esanguratsua da. SEC-en kotizatzen duten enpresen eskakizunek Dodd-Frank Legearen 1502 atalean eta EB-rako zuzeneko arduraren araudi osagarriak mundu mailako merkatuan baliagai naturalen ustiapen arduratsua go baterantz zuzendutako norabide garrantzitsu bat sortuko dute. Europako legegintza sendo batek balioko du beste eskualde ekonomikoek pareko neurriak garatu ditzaten eragiteko.

Zelan izan beharko litzateke Europako araudia?

Europako araudi batek Europako barne merkatuan merkaturatzen diren baliagai naturalak era arduratsuan lortu direla ziurtatu dezan, araudi honen helmenak ondorengo ezaugarriak izan behar ditu:

- nahiko zabala izatea salbuespenik gabe⁴² edozein gatazka edota arrisku handiko zonaldean ekoiztutako baliagai natural guztiei aplikatu ahal izateko, zonalde hauetan merkataritza-ustiapena edota arriskuak ondorio garrantzitsu eta negatiboak lagundu edota beraiekin lotuta baitaude, giza eskubideen abusua eta gatazkak barne;
- Eskatu barne merkatuan baliagai naturalekin edota hauek dituzten produktuekin⁴³ lehen aldiz salerosketan ibiltzen diren EB-n kokatuta edo erregistratuta dagoen edozein erakunde fisiko edo juridikori ELGA-ren araudia betetzen duen hornidura katea zuzeneko arduraz aplikatzeko konpromisoa har dezala..

Araudi honen edukiak ondorengo betebeharrak ditu:

- **arriskuan oinarritutako ikuspegia** funtsatu behar da, ikuspegi honen helburua salerosketaren alderdi kaltegarriak dira, salerosketa arduratsua babestuz eta mundu mailako blokeoa saihestuz. Honek enpresei beraien lanek sortutako benetako (eta posibleak) ondorio kaltegarriak ebaluatzea eskatzen die. Ikuspegi hau modu zuzenean ezartzen bada, ez du

salerosketa oztopatuko; aitzitik arduratsuagoa egingo du⁴⁴. ELGA-ren Gidan zehazten den bezala, arriskuan oinarritutako erabakiak hartzen dituzten enpresek iturri ugari dauzkate eskuragarri⁴⁵.

- **Arriskurako kudeaketa estrategia** bat har eta ezar dezaten eskatu enpresei; estrategia honek denboraldi zehatz batean identifikatutako arriskuak saihestu edo gutxiagotu behar ditu, baina bakarrik arriskuak ondorio negatibo garrantzitsuekin (giza eskubideen kontrako abusu larriak eta gatazka, esate baterako) lotuta ez daudenetan;
- **Ikuskapen erregularrak eta independenteak** eskatzea. Funtsezkoak dira enpresa baten zuzeneko arduraren sinesteko, eta inbertitzaile, akziodun, kontsumitzaile eta ikuskapenak ikuskatzen dituen Europako edozein erakunde eskudunari enpresen zuzeneko arduraren sistemen azterketa zehatza ematen diete. Mundu mailako ikuskapenek lekuko gizarte zibilerako gune bat izan behar dute bere baitan eta meatze zonaldeetan kontsultak gehitu behar dituzte; are gehiago, ikuskapenen txostenak puntualki eta erregularlari argitaratu behar dira;
- **Ahaleginen argitalpena** eskatzea **zuzeneko ardura praktikan jartzeko**. Dibulgazio publikoa ezinbestekoa da zuzeneko arduraren oinarritutako ikuspegi egoki bat funtzionatzeko eta ikuspegi honetan sinesteko. Zuzeneko arduraren informazio-gardentasunaren argitalpenak, arriskua ebaluatzeko neurriek eta zuzeneko arduraren sistemetara aplikatutako ikuskapen independenteen emaitzek balio dute gizarte zibilaren eta artekarien bigilantzia areagotzeko eta agintari estatubatuar eskudunek burututako ikuskapen ahaleginei laguntzeko. Gainera, informazio hau argitaratzeak EB-eko Pro Gardentasun Agentzia zabalagoa osatuko luke⁴⁶;
- Zuzeneko arduraren eskatzen diren baldintzekin batera **mekanismo zigortzaile** bat jartzea kontuan hartuko da ondorengo kasuetan:
 - Enpresek hornidura katean ematen diren alarma seinaleak behin eta berriro alde batera uzten dutenean eta
 - gatazkak edo giza eskubideen aurkako abusuak baliagai naturalek, zeinetaz hornitzen diren beraiek, finantzatzen dituztela dakitenean.

Kasu hauetan, mekanismo batek bere baitan eraman dezake debeku egoki baten osagaia⁴⁷.

Legalki aprobetxatutako egurraren merkataritzari buruzko Europar Batasunaren Araudiak (EUTR) aurrekari bat ezartzen du jakiteko EB-k nolako zuzeneko arduraz jokatzen duen beharrezko hornidura katea bideratzeko, eta zuzeneko

arduraren legegintza europarra berriarekin lotutako irakaspen batzuk ere eskaintzen ditu. EUTR Araudiak egurra inportatu eta merkaturatzen duten enpresei zuzeneko ardura hornidura katean aplikatzera behartzen ditu eta debekatu egiten du legez kanpoko taldetik datorren egurra merkatu europarrean sartzea. EUTR-ren puntu gogorak eta ahulak⁴⁸ erreferentzia moduan hartuz, zuzeneko arduraren legegintza berriak ondorengo ezaugarriak izan beharko lituzke:

- ELGA-ren zuzeneko arduraren neurrietan oinarritzea eta bai ikuskapen independenteak burutzeko bai enpresek zuzeneko ardura aplikatzeko egindako ahaleginak argitaratzeko betebeharra eranstea. EUTR-ren araudiak ez die eskatzen ikuskapen independenteei zuzeneko arduraren ahaleginak argiratzea, hortaz, inbertitzaileek, akziodunek eta kontsumitzaileek ez dakite ziur zuzeneko ardura aplikatzen den ala ez;
- Argi adieraztea legegintza EB-ean kokatutako edota erroldatutako pertsona fisiko edo juridiko orori aplikatuko zaiela, agintari europar eskudunei eginkizun juridikzional eta praktikoak emanez zigorak behar direnean bete daitezzen;
- Eskakizunak argi zehaztea enpresen arriskuak ebaluatzeko eta esparru bat horiek murrizteko;
- EUTR-ren Araudiaren arabera, Egingarriak diren aukerak garatzea borondatezko elkarlan eredu bat lortzeko, EUTR-ren Araudipean, Nazionalak edota eskualde zehatz bati. Aukera hauek ekimen nazionalak edota testuinguru zehatz bati begira eginak izan daitezke, inguru espezifiko baterako eginiko elkarrizketa-politikan oinarrituak eta zuzeneko ardurak eskatzen dituen eskakizunetatik harago doazen beste herrialde edo eskualdeekin burutuak; ekimen hauek, halaber, arazoaren lekuan bertan ari diren kide eta agintarien elkarlanarekin garatzen dira.

Araudiarekin batera joango diren neurriak

Enpresa europarrei baliagai mineralak modu arduratsuan ustiatzea exigitzea puntu kritiko bat da baliagai naturalek eragiten duten gatazka konpondu eta saihesterako orduan.

Hala ere, balaigai naturalak gatazkaren eta giza eskubideen urratzearen sorburua diren herrietan epe laburreko garapenera eta egonkortzera laguntzeko helburuarekin, legegintza europarrak gatazkaren eta bere ahultasunaren kausa sakonei ukitzen dien ikuspegi zabala eta osagarriago baten atala izan behar du⁴⁹. Herrialde edo eskualde zehatzetako gobernantza, segurtasun sektorea eta baliagai naturalen kudeaketetan emandako erreformei zuzendutako

laguntza pertsonalizatua izan daiteke, eta giza eskubide eta zuzenbidezko estatuarekiko errespetua eta babesa sustatu beharko lituzke.

EB-k mota askotako kanpo-politika eta finantza-tresnak ditu eta sinergien identifikazioa eta eraikuntza ziurtatu beharko lituzke esparru politikoen artean. EB-eko zuzeneko ardurari buruzko legegintza garapenerako laguntza programekin osatu beharko litzateke, programa hauen helburua eskualdeko agintarien eta komunitateen gaitasuna baliagai naturalak era iraunkorrean kudeatzeko sustatzea delarik.

Pasibotasunaren ondorioak

Enpresei bere hornidura kateak onbideratzera behartzen dien legegintzarik gabe ezingo dugu ikusi zein pausu ematen dituzten, ematen baldin badituzte, gatazka eta arrisku zonaldeetatik datozen baliagai naturalak eta lehengaiak erosten dituzten Europar kokatutako enpresek talde armatuen eta giza eskubideen aurkako abusuen finantzaketa saihesteko. Legegintza barik, gatazka eta giza eskubideen kontrako abusuak finantzatzen dituzten baliagai naturalak eta lehengaiak (eta hauek dituzten produktuak) EB-n sartzen jarraitzea posiblea da.

Enpresa europarrek hornidura katea modu eskasean kudeatzeak biolentziaren eta giza eskubideen kontrako abusuak egon daitezen laguntzen du baliagai natural ugari dituzten eskualdeetan, lekuko populazioa eta ekonomiarako ondorioak katastrofikoak izanik. Gatazka, eskaeran dauden produktuen merkataritzak finantzatua dagoena, lekualdaketa ugarien eta elikagai segurtasun-gabeziaren kausa da askotan eta berreraikuntzarako ahaleginak egitea saihesten du azkenik.

Kezkarik gabe burutzen diren salerosketak garestiak dira Europako zergadunentzat ere garestiak dira. EB-k milioika euro zuzentzen ditu garapenerako laguntzara, populazioak baliagai naturalek eragindako gatazken biktimak diren herrialdeetara. Publikoki finantziatutako garapenerako laguntzak segurtasuna eta egonkortasuna handitzea du helburu, eta ahulduta geratzen da enpresek, Europakoek barne, beraien salerosketa-jardueraren bidez ezegonkortasuna sustatzen dutenean.

Baliagai naturalen eskaria handiagotzen da eta horrela jarraituko du eragile ekonomiko berriak sortu eta merkatuak hedatzen diren heinean. Mundu mailako lehiaketa azkeneraino iristea saihesteko, Europako Batzordeak ziurtatu behar du bere eskumenean baliagai naturalak erabiltzen dituztenak herrialde ekoizleetako lekuko populazioek onura ateratzeko moduan hornitzen direla,

negozio eta kontsumitzaile europarrak laguntzen dituen modu berean. Eragin handiago honekin merkatuan, EB-k mundu mailako hornidura kateetan eragina izateko aukera du eta beste eskumen batzuk sustatu ditzake pareko ekintzak egin ditzaten. EB-k enpresa europarrek gatazka eta abusuak laguntzen ez dituztela ziurtatzeko duen modurik onena enpresek hornidura katean bete behar dituzten zuzeneko arduraren betekizunak argi ezartzen dituen zentzuzko araudi eraginkor bat sartzea da.

¹Batzordeak *Europar Parlamentuari, Kontseiluari, Gizarterako eta Ekonomiarako Batzorde Europara eta Eskualdetako Batzordea: A Renewed EU Strategy 2011-14 for Corporate Social Responsibility (Gizarte-Ardura Korporatiborako Berritutako Estrategia Europarra: 2011-2014)*, eskuragarri <http://eurlex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2011:0681:FIN:EN:PDF>.

²Informazio gehiagorako, ikusi EB-ko Garapenerako eta Kooperaziorako Zuzendaritzaren web orrialdea. <http://europa.eu/pol/dev/>

³G8ren Deklarazioa Lough Erne-n (Irlanda), 2013ko ekaina, 40. artikulua. www.gov.uk/government/uploads/system/uploads/attachment_data/file/207771/Lough_Erne_2013_G8_Leaders_Communique.pdf

⁴Global Witness eta CCFD-Terre Solidaire (Garapenerako eta Gosetearen kontrako Batzorde Katolikoa), 2012ko urtarrilak 27, *EU takes step towards conflict-free supply chains* (EB-k pausu bat aurrera ematen du gatazkarik gabeko hornidura kateetarantz) www.globalwitness.org/library/eu-takes-step-towards-conflict-free-supply-chains ; DG Trade, 2012 urtarrilak, *Trade, Growth and Development (Comercio, crecimiento y desarrollo)* orr. 15, http://trade.ec.europa.eu/doclib/docs/2012/january/tradoc_148992.EN.pdf.

⁵ Informazio gehiagorako, ikusi: www.oecd.org/daf/inv/mne/

⁶Giza Eskubideen Batzordea, 2011ko ekainak 16., *Guiding Principles on Business and Human Rights: Implementing the United Nations 'Protect, Respect and Remedy' Framework (A/HRC/17/31)*, [Enpresa eta Giza Eskubideei buruzko Printzipio Gidariak: Nazio Batuen "Babestu, Errespetatu eta Kopondu" 25. Printzipioa. www.ohchr.org/Documents/Publications/GuidingPrinciplesBusinessHR_EN.pdf; Europako Parlamentua 2013ko urtarrilak 29, *2012/2097 Erabakia (INI) enpresen gizarte-erantzukizunari buruz: gizartearen interesak eta iraunkorra eta integraztailea den berreskuratze baterantz bidea sustatu*, 40. Gomendapena www.europarl.europa.eu/sides/getDoc.do?type=REPORT&reference=A7-2013-0023&language=EN

⁷ Subkontratatik barne, ikusi 1. oharra.

⁸"Mundu guztira era geografikoan iristea" kontzeptua erabiltzen dugu zuzeneko arduraren legegintza europarra ez dela eskualde edota herrialde batean bakarrik eman behar azaltzeko, baizik eta enpresei eskatu behar die hornidura katea zuzeneko arduraren arabera ekitea gatazka eta arrisku handiko zonalde guztietatik datozen baliagai naturalekin hornitzen direnean.

⁹Dokumentu honetan azpimarratutako kasu praktikoak erakusten duten bezala, baliagai natural askotako salerosketak gatazkak finantziatu ditzake. Edozein motatako baliagai naturalekin salerosketan aritzen diren enpresek ziurtatu beharko lukete hau ez dela gertatzen, horrela giza eskubideen bortxaketa edota gatazken suspensa laguntzen saiesten da.

¹⁰Ikerketa batzuek erakusten dute askotan pertsonen baldintza arriskutsuetan lan egitera behartuta daudela eta esplotatzen dituztela, beraien osasunari, ongizateari eta segurtasun pertsonalari buruz kezkaturik. Kasu batzuetan, haur esplotazioa ematen da gutxien susmatutako baldintzetan, eta haur- eta emakume-trafikoa ere. Langileek tratu gupidagabea eta jasanezina jasan dezakete eta segurtasun-indarrek bidegabekeriarekin atxilotu ditzakete frogatu gabeko arrazoietan oinarrituz (adibidez, langileek bere eguneko irabazien zati bat segurtasun zaindariari emateari uko egiten diote). Ikusi Amnestia Internazionala, 2013ko ekainak 18, *Profits and loss: Mining and human rights in Katanga, Democratic Republic of the Congo*, www.amnestyusa.org/research/reports/profits-and-loss-mining-and-humanrights-in-katanga-democratic-republic-of-the-congo

¹¹ UNEP, 2009, (Ingurugirorako Nazio Batuen Programa), *From Conflict to Peacebuilding: the Role of Natural Resources and the Environment*, eskuragarri www.unep.org.

¹² Ignacio Gómez G., 2012, *Colombia's black-market coltan tied to drug traffickers, paramilitaries*; The Center for Public Integrity, 2012 martxoak 4, www.publicintegrity.org/2012/03/04/8284/colombias-black-market-coltan-tied-drugtraffickers-paramilitaries; Kevin Boyd, 2009ko maiatzak 28, *Federal Lawsuit Alleges U.S. Mining Company Drummond Paid Millions to Colombian Paramilitary* www.reuters.com/article/2009/05/28/idUS192843+28-May-2009+PRN20090528; Hannah Aronowitz, 2011ko martxoak 16, *Drummond paid Colombian paramilitaries: WikiLeaks Colombia Reports*, <http://colombiareports.co/us-coal-firm-drummond-paid-paramilitaries-wikileaks/>

¹³ Massé F. eta Camargo J., 2012, Toledo International Centre for Peace (CITpax), V. txostena, orr.7, *Actores Armados Ilegales y Sector Extractivo en Colombia*, www.toledopax.org/uploads/Actores_armados_ilegales_sector_extractivo.pdf.

¹⁴Meatze-tituluen %10 baino gutxiagok ingurune-litzentzia dute eta Kolonbiako gobernua 17.089.085 hektareetako zonaldea "Meatze-zonalde estrategiko" bezala izendatu du; zonalde hau Amazonaseko eskualdean dago batez ere eta biosfera paregabea du, planetarako ezinbestekoa dena. Ikusi Contraloría General de la República, El Espectador, 2013ko ekainak 12 *Minería, latente en la Amazonia*, www.elespectador.com/noticias/medio-ambiente/articulo-427434-mineria-latente-amazonia

¹⁵Kolonbiako meategi- eta ikatz barrutiak nazio osoaren %35 da. Derrigorrezko kekualdaketen %87 barruti hauetan gertatzen dira eta meatzaritzatik eta ekoizpen energetikotik lortutako irabazietatik bere zatia jasotzen duten zonaldeetan ere. Sindikalisten aurka burututako krimenen %78, herri indigenen aurka burututako %89 eta arbaso afrikarrak duten pertsonen aurka burututako krimenen %90 meatze zonaldeetan eta ekoizpen energetiko zonaldeetan gertatzen dira. Ikusi Contraloría General de la República, 2013ko maiatza, *Minería en Colombia: Fundamentos para superar el modelo extractivista*.

¹⁶Ariel Fernando Ávila, *Observatorio del Conflicto en la Corporación Nuevo Arco Iris*-ren koordinatzailea, Santiago Fischerrek 2013ko martxoak 15 Justiza eta Bakea Batzorderako egindako elkarrizketa. Ikusi Santiago Fischer (2013), *Vers la fin du conflit avec les FARC en Colombie ?*, Justizia eta Bakerako Batzordea, Bruselas, www.justicepaix.be/?article681.

¹⁷Global Witness, 2005ko ekainak 30, *Under-Mining Peace: Tin - the Explosive Trade in Cassiterite in Eastern DRC*, www.globalwitness.org/library/under-mining-peace-tin-explosivetrade-cassiterite-eastern-drc; 2009ko uztailak 31, *Faced with a Gun What Can You Do?*; 2011ko maiatza, *Congo's Minerals Trade in the Balance*, <http://www.globalwitness.org/sites/default/files/library/Congo's%20minerals%20trade%20in%20the%20balance%20low%20res.pdf>; 2012ko maiatza, *Coming Clean*, www.globalwitness.org/sites/default/files/Coming_clean.pdf; 2013ko maiatza, *Putting Principles*

into Practice,

www.globalwitness.org/sites/default/files/library/Putting%20principles%20into%20practice.pdf.

¹⁸Free the Slaves, 2011ko ekaina, *The Congo Report: Slavery in Conflict Minerals*, <http://freetheslaves.net/Document.Doc?id=243>; Free the Slaves, 2013ko ekaina, *Congo's Mining Slaves: Enslavement at South Kivu Mining Sites*, <http://ffsblog.net/wp-content/uploads/2013/06/Congos-Mining-Slaves-web-130622.pdf>.

¹⁹ Amnistia Internazionale, 2013ko ekaina, *Profits and Loss: Mining and human rights in Katanga*, eskuragarri ondorengo loturan: www.amnesty.org.uk.

²⁰EEBBek Birmaniarekin G8ren bitartean erauzketa-industriei buruz egindako kolaborazioa, 2013ko ekainak 14, www.state.gov/e/en/rls/ot/210632.htm; Yolanda Fong-Sam, *The Mineral Industry of Burma*, USGS 2010 Minerals Yearbook, <http://minerals.usgs.gov/minerals/pubs/country/2010/myb3-2010-bm.pdf>; Ikuskapen Geologikoaren eta Meatze-Azalpenen Saila, Birmaniaren Batasunaren Errepublikaren Gobernuak, 2012ko martxoak 13, *Data Base Building in Ministry of Mines, Myanmar*, [www.ccop.or.th/eppm/projects/36/docs/Myanmar_CCOPmetadata_presentation%20\(13-03-2012\).pdf](http://www.ccop.or.th/eppm/projects/36/docs/Myanmar_CCOPmetadata_presentation%20(13-03-2012).pdf).

²¹ Tom Lantos Block Burmese Jade (Batzordearen Ahalegin Demokratikoak) Lege Publikoa 110-286, 2008ko uztailak 29, www.treasury.gov/resourcecenter/sanctions/Documents/pl110_286_jade_act.pdf ; Aung Hla Ta, Reuters, 2011ko martxoak 25, *Myanmar gems sale nets record \$2.8 billion— official*, <http://uk.reuters.com/article/2011/03/25/us-myanmargems-idUSTRE72O2FI20110325>; Shibhani Mahtani eta Patrick Barta, Wall Street Journal, 2013ko maitzak 17, *Secret Rocks*, <http://online.wsj.com/article/SB10001424127887323372504578466933124542820.html> ; The Economist, 2013ko martxoak 25, *Democracy on Prescription*, www.economist.com/news/special-report/21578169-whymyanmars-military-rulers-are-givingpower-people-democracy-prescription; China Daily, 2013ko ekainak 20, *Troubled Copper Mine back on Track*, eskuragarri ondorengo loturan www.chinadaily.com.cn/ ; Human Rights Watch, 2008ko uztailak 29, *Burma's Gem Trade and Human Rights Abuses*, www.hrw.org/legacy/english/docs/2008/01/11/burma17729.htm.

²²Charu Lata Hogg eta Matthew Smith, Chatham House, 2013ko martxoak 4, *Asia Meeting Summary – Human Rights in Burma*, orr.5, www.chathamhouse.org/sites/default/files/public/Research/Asia/040313summary.pdf; Human Rights Watch, 2012ko urtarrila, *World Report 2012: Burma*, orr.3, www.hrw.org/world-report-2012/world-report-2012-burma; Amnistia Internazionale, 2013ko urtarrilak 16, *Burma: Fresh air strike deaths in Kachin State as 'humanitarian crisis' looms*, www.amnesty.org.uk/news_details.asp?NewsID=20566; Giza Eskubideetarako eta Merkataritzarako Institutua, 2012ko urriak 4, orr. 3, *Submission to the US State Department on US Reporting Requirements on Responsible Investment in Burma (Myanmar)*, www.ihrb.org/pdf/2012-10-04-IHRBSubmission-to-US-Dept-of-State-on-US-Reporting-Req-for-Burma.pdf.

²³Global Witness, 2012ko ekaina, *Financing a Parallel Government?*, www.globalwitness.org/library/financingparallel-government-Zimbabwe

²⁴Krista Larson, 2013ko maiatza, *In Central African Republic, Diamonds are Seleka rebels' best friend*, www.huffingtonpost.com/2013/05/06/central-african-republic-diamondsrebels_n_3225410.html.

²⁵Human Rights Watch, 2013ko maiatza, www.hrw.org/news/2013/05/10/central-african-republic-rampantabuses-after-coup.

²⁶Giza eskubideak era larrian urratzea eta ingurugiroa modu nabarmenean andeatzea ere eman ahal dira normalean gatazka edota arrisku handiko zonaldeetat hartutako zonaldeetan ez dauden meatze-kokalekuetan. Adibidez, platino-meatzarien protestei emandako erantzun bortitza Hegoafrikan, edota eztainu-meatzaritzarekin lotuta dagoen ohian tropikalen eta koralezko arrezifeen suntsipena Bangka uhartean, Indonesian. Ikusi BBC 2012ko irailak 19, *South Africa police fire at Marikana mine protesters*, www.bbc.co.uk/news/world-africa-19646264; Friends of the Earth, *Mining for Smartphones: The true cost of tin*, www.foe.co.uk/resource/reports/tin_mining.pdf.

²⁷ Giza Eskubideen Nazioarteko Gutuna: www.ohchr.org/Documents/Publications/Compilation1.1en.pdf.

²⁸Ikusi NBE-ren “Babesteko, errespetatzeko eta konpontzeko esparrua”. Esparru honen lehengo puntuak ondorengoa azpimarratzen du: “Estatuaren betebeharrak beste batzuek, enpresak barne, egindako giza eskubideen urratzearen kontra babestea da politika aproposa, araudiak eta epaiak ezarri. www.ituc-csi.org/IMG/pdf/12-04-23_ruggie_background_fd.pdf; eta ere Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala, www.un.org/en/documents/udhr/.

²⁹Betebehar honen arabera, Estatuak alerta-adierazle aurreratuak garatzea aukeratu dezakete eta merkataritza-enpresek adierazle hauek erabili ditzakete “alarma seinaleak” ahalik eta lehen identifikatzeko. Ikusi: www.ohchr.org/Documents/Publications/GuidingPrinciplesBusinessHR_EN.pdf

³⁰ 7. Printzipio Gidaria, Merkatatitzarako eta Giza Eskubideentzako Printzipio Gidariak, UNOHCHR, 2011

³¹Ikusi Dodd Frank-en arauaren 1502. atalan. www.sec.gov/rules/final/2012/34-67716.pdf.

³²Ikusi NBE-ren Segurtasun Kontseiluaren 1952. erabakia (2010) [www.un.org/ga/search/view_doc.asp?symbol=S/RES/1952\(2010\)](http://www.un.org/ga/search/view_doc.asp?symbol=S/RES/1952(2010)).

³³*Arrêté ministériel N.0057.CAB.MIN/MINES/01/2012 du 29 février 2012 portant mise en oeuvre du mécanisme régional de certification de la Conférence Internationale sur la Région des Grands-Lacs « CIRGL » en République Démocratique du Congo, Article 8. (2012ko otsailak 29ko N.0057.CAB.MIN/MINES/01/2012 Ministerio-Dekretua, Aintzira Handiko Eskualdeari buruzko*

Nazioarteko Batzarraren eskualdeko ziurtapen-mekanismoa Kongoko Errepublika Demokratikoan martxan ipintzen duen dekretua da, 8. Artikulua)

³⁴Ikusi Aintzira Handiko Eskualdeari buruzko Nazioarteko Batzarraren Eskualdeko Meatze-Ziurtapenaren Gidaliburua: www.oecd.org/investment/mne/49111368.pdf.

³⁵Kongoko Errepublika Demokratikoan, enpresek talde-armatuak eta Kongoko armadako kideak urteen zehar finantziatu zuten mineralak erosi zituzten, ELGA-ren kontaktu-puntu nazionalen aurkeztutako kexen eta NBE-ren zigorren arren. Ikusi, Global Witness, 2009ko irailak 4, *New report undermines DRC mineral traders' due diligence claims*, www.globalwitness.org/library/newreport-undermines-drc-mineraltraders%E2%80%99-due-diligenceclaims.

³⁶Global Witness, 2013ko uztailak 24, *Global Witness applauds D.C. Court's decision to uphold conflict minerals provision*, www.globalwitness.org/library/global-witness-applauds-dccourt%E2%80%99s-decision-upholdconflict-minerals-provision.

³⁷SOMOk merkataritza ikerketa bat burutu zuen Europan erregistratutako 10 sektore desberdinetako 186 enpresekin; lehenengo emaitzek erakusten dute 152 enpresek bere web orrialdeetan ez dituztela gatazka mineralak edota mineralen hornidura arduratsu bat aipatzen. SOMO, oraindik argitaratu gabe, 2013ko urria.

³⁸Global Witness, 2012ko abuztuak 21, *Implementing the Conflict Minerals Provision - The cost of business as usual*, www.globalwitness.org/library/implementing-conflict-mineralsprovision-cost-business-usual.

³⁹Green Research, 2012ko urtarrila, *The Costs and Benefits of Dodd Frank Section 1502: A Company Level Perspective*, eskuragarri www.sec.gov/comments/s7-40-10/s74010-470.pdf.

⁴⁰Global Witness-en kongresu-testigantza ikusi, 2013ko maiatzak 21, <http://financialservices.house.gov/uploadedfiles/hhrg-113-ba19-wstatespickles-20130521.pdf>.

⁴¹Ikusi <http://europa.eu/youreurope/business/profitng-from-eu-market/>.

⁴²Lehengaiak gatazka finantziatu ez dutela ziurtatzeko, enpresek ELGA-n araudiak betetzen dituen zuzeneko ardurari ekin behar dio hornidura-katean. Europako Batzordeak baliagai naturalekin ez du inolako salbuespenik egin behar. Lehengaien Ekimen Europarrean identifikatutako "beharrezko" produktuen hornidura kateek beste baliagai naturalen hornidura-kateek dituzten hornidura arduratsu batentzako arau berdinak bete behar dituzte.

⁴³Araudi batek aipatutako lehengaiak edota lehengai hauek duten edozein produktu bere baitan eduki behar du, EB-ko edozein estatu kidearen merkatuan lehen aldiz merkaturatzen diren azkenengo produktu manufakturuak barne (ikusi 2. oharra).

⁴⁴Araudi batek enpresei eskatu beharko lieke ELGA-ren Zuzeneko Arduraren Gidaren arriskuaren balioztatze osagarria erabiltzea, horrela enpresek aurrez aurre dauden aldeei onura eman

diezaiokete eta hornidura katean zehar ematen den edozein salerosketa mota duela eta hornidura kateak kudeaketarekiko konpromesua hartzen dutela ziurtatzen da

⁴⁵ELGA-ren Zuzeneko Arduraren Gida ikusi: "Informazio garrantzitsuak bere baitan izango ditu (gobernuen, nazioarteko erakundeen, GBE-ren eta prentsaren) txosten publikoak, mapak, NBE-ren txostenak eta NBE-ren Segurtasun Kontseiluaren zigorrak, jatorrizko herrialdean meatze-erazketarekin eta gatazkan, giza eskubideetan edota ingurugiroko kaltean dituen ondorioekin lotuta dagoen bibliografia industrial, edota beste deklarazio publikoak (adibidez, errentarako funtsa etikoak)". www.oecd.org/daf/inv/mne/GuidanceEdition2.pdf.

⁴⁶Global Witness, 2013ko ekainak 12, *EU vote marks birth of global transparency standard – G8 to pick up the challenge*, www.globalwitness.org/library/eu-vote-marks-birth-globaltransparency-standard-%E2%80%93-g8-pick-challenge , eta Christian Aid, 2013ko maiatzak 14, *EU on verge of 'historic breakthrough' for tax justice*, www.christianaid.org.uk/pressoffice/pressreleases/may-2013/eu-on-vergeof-historic-breakthrough-for-taxjustice.aspx

⁴⁷ELGA-ren Zuzeneko Ardurarako Gidaren II Eranskinan agertzen diren Gatazka eta Arrisku Handiko Zonaldeetatik datozten Mineralen Mundu Mailako Hornidura Kate Arduratsu batentzako, Hornidura Katearen Eredu batentzako Politikak gomendatzen du enpresek "berehala bere konpromisoak hornidura kateko aurreko hornitzaileekin eten behar dituztela, abusu larriak egiten dituen edozein aldearekin lotuta daudela edota hornitzen ari direlaren arrisku handia identifikatzen denean. Ikusi www.oecd.org/daf/inv/mne/GuidanceEdition2.pdf.

⁴⁸Global Witness, 2013ko maiatzak 28, *Three quarters of Ghana's new logging permits could break Europe's new timber law*, www.globalwitness.org/ghanapermits ; BBC Online, 2013ko uztailak 22, *Has the EU fallen for Congo rainforest logging scam?*, www.bbc.co.uk/news/world-africa-23358055.

⁴⁹Ikusi Mark B. Taylor, 2013ko maiatzak 21, *Conflict Financing: what's wrong with war economies?*, www.peacebuilding.no/Themes/Armed-violenceand-conflict-in-fragile-settings/Publications/Conflict-financing-whats-wrong-with-war-economies.

act:onaid
Netherlands



BEWG



INFO
BIRMANIE

International **Crisis Group**
WORKING TO PREVENT
CONFLICT WORLDWIDE

Investors / **Against Genocide**



Beste sinatzaileak: Acidi Congo (Hego Kivu), Kongoko Errepublika Demokratikoa; Action des Chrétiens Activistes des Droits de l'Homme à Shabunda (ACADHOSHA), Kongoko Errepublika Demokratikoa; Centre National d'Appui au Développement et à la Participation Populaire (CENADEP), Kongoko Errepublika Demokratikoa; Centre for Trade Union and Human Rights (CTUHR), Filipinak; Fair Trade Centre, Suedia; Free the Slaves, Estatu Batuak; FAFO Institute for Applied International Studies-eko Mark Taylor, Oslo, Norvegia; Shan Sapawa, Birmania.

Laguntzaileak:

